
§D8

**NORMA FORAL 2/2023,
DE 15 DE FEBRERO,
POR LA QUE SE REGU-
LA EL INSTITUTO PARA
LA PROVISIÓN DE ME-
DIDAS DE APOYO, GAI-
KUNTZA**

**OTSAILAREN 15EKO
2/2023 FORU ARAUA,
BABES NEURRIEN
HORNIDURARAKO INS-
TITUTUA, GAIKUNTZA,
ARAUTZEN DUENA**



NORMA FORAL 2/2023, DE 15 DE FEBRERO, POR LA QUE SE REGULA EL INSTITUTO PARA LA PROVISIÓN DE MEDIDAS DE APOYO, GAIKUNTZA

(BOB nº 42, de 1 de marzo de 202342)

PREAMBULO

I

Mediante la Norma Foral 9/2000, de 31 de octubre, posteriormente modificada por la Norma Foral 3/2003, de 13 de marzo, se aprobó la creación del Instituto Tutelar de Bizkaia, como Ente de Derecho Público con personalidad jurídica y plena capacidad pública y privada, para el cumplimiento de sus fines, sin ánimo de lucro, acogiendo su régimen legal y naturaleza, así como sus actividades, al Ordenamiento Jurídico Privado. De esta manera se pretendía dar respuesta a los problemas que aquejaban a las personas a las que judicialmente se hubiera modificado su capacidad de obrar, hubiera sido declarada su incapacidad, o se hubiera acordado cualquier disposición limitativa de su capacidad de obrar o de administración de sus bienes, por motivos físicos o psíquicos.

En definitiva, la referida Norma Foral 9/2000, de 31 de octubre, fue creada para atender, genéricamente, la gestión de las diversas encomiendas que le fueren asignadas al Instituto Tutelar de Bizkaia por la declaración judicial de incapacidad de las personas físicas, en relación con el desempeño de las labores propias de la tutela, curatela, defensa judicial y, de manera residual, de la administración de bienes de menores.

II

Las históricas figuras de guarda, como la Tutela y la Curatela, obedecen a unos registros normativos que datan de épocas pretéritas, pero en el momento en que se crea el Instituto Tutelar de Bizkaia mediante norma de 9/2000, de 31 de octubre, ya se realizaba la valoración de la capacidad, fundamentalmente cognitiva y psíquica, de las personas con discapacidad para determinar la extensión y límites de la incapacidad judicial o, en su caso, de la modificación de su capacidad, e incluso permitía la graduación de la capacidad de la persona.

OTSAILAREN 15EKO 2/2023 FORU ARAUA, BABES NEURRIEN HORNIDURARAKO INSTITUTUA, GAIKUNTZA, ARAUTZEN DUENA

(152 zenbakidun BAO, 2023.eko martiaren 1ekoa)

HITZAURREA

I

Urriaren 31ko 9/2000 Foru Arauaren bidez, ondoren martxoaren 13ko 3/2003 Foru Arauak aldatu zuena, Bizkaiko Tutoretza Erakundea sortzea onetsi zen, dagozkion helburuak betetzeko izaera juridikoa eta erabateko gaitasun publiko eta pribatua duen zuzenbide publikoko entitate gisa, irabazi asmorik gabe; hala, araubide legala, izaera zein jarduerak ordenamendu juridiko pribatuan kokatu ziren. Hala, erantzuna eman nahi izan zitzairen jarduteko gaitasuna judizialki aldatu zitzairen pertsonen arazoei, edo ezintasuna aitortu zaien pertsonen arazoei, edo arrazoi fisikoak edo psikikoak direla medio haien ondasunak kudeatu edo jarduteko gaitasuna mugatu dien edozein xedapen jaso duten pertsonen arazoei.

Azken finean, aipatutako urriaren 31ko 9/2000 Foru Araua sortu zen, oro har, pertsona fisikoen ezintasuna judizialki aitortzeak Bizkaiko Tutoretza Erakundeari emandako zenbait betebeharrak kudeatzeko, tutoretza, kuradoretza, defentsa judiziala eta, neurri txikiagoan, adingabeen ondasunak kudeatzeko lanak betetzeari.

II

Zaintza figura historikoak, esaterako tutoretza eta kuradoretza, aspaldiko garaietako araudi erregistro jakin batzuetakoak dira, baina Bizkaiko Tutoretza Erakundea sortu zenean, urriaren 31ko 9/2000 Arau bidez, ordurako desgaitasuna duten pertsonen gaitasunaren balorazioa egiten zen (batez ere kognitiboa eta psikikoa), ezintasun judizialaren edo, hala badagokio, gaitasun aldatuaren irismena eta mugak zehazteko, eta, are gehiago, pertsonaren gaitasuna berriz ere neurtzea ere ahalbidetzen zen.

Desde esa perspectiva, existe un posicionamiento unánime a nivel internacional en una inexcusable necesidad de adaptar las legislaciones nacionales a esa nueva visión del alcance que ha de conllevar la declaración de incapacidad y sus efectos, fruto de la cual fue la Convención Internacional de Nueva York, de 13 de diciembre de 2006, sobre los derechos de las personas con discapacidad. En su artículo 12 proclama que las personas con discapacidad tienen capacidad jurídica en igualdad de condiciones con las demás en todos los aspectos de la vida, obligando a los Estados Parte a adoptar las medidas pertinentes para proporcionar a las personas con discapacidad el apoyo que puedan necesitar en el ejercicio de su capacidad jurídica.

Ya en el año 2008 la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, en su artículo 22 incluye en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales el servicio 2.7.2.3. Servicio de tutela para personas adultas incapacitadas (sic), al cual responde el Instituto Tutelar de Bizkaia.

El desarrollo reglamentario dio lugar al Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales. Desarrollando, también, el contenido del servicio 2.7.2.3. Servicio de tutela para personas adultas incapacitadas (sic).

III

De este modo, la legislación se ha ido acomodando, a la Convención de Nueva York, y, por ello, mediante la Ley 8/2021, de 2 de junio, por la que se reforma la Legislación Civil y Procesal para el apoyo a las personas con discapacidad en el ejercicio de su capacidad jurídica, se ha modificado de manera sustancial el Código Civil en este ámbito.

Esta nueva regulación elimina los conceptos de la incapacidad de quien no se considera suficientemente capaz y de la modificación de una capacidad que resulta inherente a la condición de persona humana. El nuevo sistema es el de apoyo a la persona que lo precise, en el ámbito que lo necesite. Debemos tener en cuenta que la reforma no trata de un mero cambio de terminología, por otros conceptos más precisos, sino que supone un nuevo enfoque de la realidad, que advierte que las personas con discapacidad son titulares del derecho a la toma de sus propias decisiones, derecho que ha de ser respetado, por tratarse de una cuestión de derechos humanos.

Esta modificación exige, a su vez, una adecuación a la misma de las funciones que desarrolla el Instituto Tutelar de Bizkaia. No se trata de disolver la entidad, sino de aprobar un nuevo marco regulatorio que recoja el cambio de la denominación del instituto, así como la misión y funciones del mismo, y ello debido a la importancia de las modificaciones que se plantean.

Ikuspegi horretatik, nazioarte mailan aho batez onartuta dago estatuetako legediak ezinbestean egokitu egin behar direla ezintasuna aitortzeak eta horren ondorioek dakarten irismenaren ikuspegi berri horretara; horren emaitza gisa sortu zen New Yorkeko Nazioarteko Konbentzioa 2006ko abenduaren 13an, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzkoa. 12. artikuluan jaso zenez, desgaitasuna duten pertsonak gainerako pertsonen baldintza berdinetan daukate gaitasun juridikoa bizi-tzaren alderdi guztietan, eta desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa baliatzean beharrezkoa izan dezaketen laguntza ematera behartu zituzten estatu guztiak.

2008an, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, 22 artikuluan, 2.7.2.3 zerbitzua jasotzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan. Ezinduentzako tutoretza zerbitzua (sic), eta Bizkaiko Tutoretza Institutuak erantzun dio.

Erregelamendu bidezko garapenaren bidez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen zorroaren urriaren 6ko 185/2015 Dekretua egin zen. Zerbitzuaren edukia ere garatuz 2.7.2.3. Ezinduentzako tutoretza zerbitzua (sic).

III

Hala, legedia New Yorkeko Konbentziara moldatu da, eta, horregatik, Gaitasun juridikoaren egikaritzan desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko legeria zibila eta prozesala erreformatu zuen ekainaren 2ko 8/2021 Legearen bitartez, Kode Zibilean aldaketa nabarmena egin da alderdi horretan.

Erregulazio berri horrek ezabatu egin ditu aski gaitzat jotzen ez den pertsonaren ezintasunaren kontzeptuak eta gizakion berezko gaitasuna aldatzeko kontzeptuak. Sistema berriak behar duen pertsonari laguntza ematea du oinarri, behar duen esparruan. Aintzat hartu behar dugu erreformak ez duela terminologia aldaketa huts bat eragiten, eta aurrekoen ordez kontzeptu zehatzagoak ekartzeko; aitzitik, errealitatearen ikuspegi berri bat ekarri du, eta ohartarazten du desgaitasuna duten pertsonak haien erabaki propioak hartzeko eskubideen titularrak direla, eta eskubide hori errespetatu egin behar dela, giza eskubideen auzi bat delako.

Aldaketa horrek, bidenabar, Bizkaiko Tutoretza Erakundeak betetzen dituen funtzioak auzi horretara egokitzea ere badakar. Kontua ez da erakundea desegitea, baizik eta araudi-esparru berri bat onartzea, institutuaren izenaren aldaketa jasoko duena, bai eta haren misio eta eginkizunak ere, eta hori planteatzen diren aldaketen garrantziagatik.

Ante la desaparición de la tutela como una de las instituciones de apoyo (salvo para las personas menores de edad), tal y como venía siendo configurada en la normativa precedente, se plantea definir la función principal de la Entidad en la provisión de medidas de apoyo a las personas con discapacidad, medidas que engloban todo tipo de actuaciones. Estas medidas de apoyo se basan en la idea central de que la capacidad resulta inherente a la condición de persona humana y que, por ello, no puede verse modificada. Además, las personas que presten los apoyos deben de actuar atendiendo a la voluntad, deseos y preferencias de quien lo requiera, procurando que la persona con discapacidad pueda desarrollar su propio proceso de toma de decisiones, informándola, ayudándola en su comprensión y razonamiento y facilitando que pueda expresar sus preferencias.

De igual manera, se otorga preferencia a las medidas preventivas, poderes y mandatos, así como la posibilidad de auto curatela. En estos casos, el Instituto para la provisión de medidas de apoyo, Gaikuntza, no tendría ninguna intervención debido a que son medidas preventivas que la persona ha tenido que otorgar con anterioridad a que la autoridad judicial determine la provisión de apoyos que precisa la persona con discapacidad, salvo que en la resolución judicial se indique que la persona debe ser asistida por su curador para ese acto concreto.

Otra medida, a la que hace especial hincapié la reforma, es la guarda de hecho, que se transforma en una institución jurídica de apoyo, al dejar de ser una situación provisional cuando se manifiesta como suficiente y adecuada para la salvaguarda de los derechos de la persona con discapacidad. Es por ello, que no tiene ámbito de intervención el Instituto para la provisión de medidas de apoyo, Gaikuntza, al estar contemplado para aquellos supuestos en los que la persona con discapacidad está adecuadamente asistida o apoyada en la toma de decisiones y el ejercicio de su capacidad por un guardador de hecho, generalmente un familiar, pues la familia sigue siendo en nuestra sociedad el grupo básico de solidaridad y apoyo entre las personas que la componen, que no precisa de una investidura judicial formal que la persona con discapacidad no desea. Es más, el legislador ha previsto que en los casos en que la persona guardadora de hecho tenga que hacer una actuación representativa, le da las herramientas suficientes para que pueda solicitar la correspondiente autorización judicial ad hoc.

Se refuerza la figura de la persona guardadora de hecho (familiar o allegado/a), porque se supone que los apoyos familiares van a ser más beneficiosos para la persona con discapacidad. Pero, para aquellos casos que la guarda de hecho no existe o es insuficiente, se desarrolla, de mayor manera, que evite la introducción sistemática e inexcusable de figuras de naturaleza representativa, decantándose por una labor más bien asistencial, ya que aquéllas sólo habrán de operar de manera excepcional y ante los casos graves de discapacidad, en los cuales únicamente podrá tener un alcance general.

Laguntza instituzio gisa tutoretza aurreko araudian konfiguraturata zegoen moduan desagertzearekin (adin txikiko pertsonen kasuan salbu), entitatearen funtzio nagusia desgaitasuna duten pertsonen laguntza neurriak emateko funtzio gisa definitzea planteatu da; neurri horiek mota guztietako jarduketak hartzen dituzte barne, besteak beste, hainbat egintzetarako baimena ematea, ondarea kudeatzea edo, esaterako, egintza juridikoak egitea. Laguntza neurri horiek oinarritzat duten ideia nagusia da gaitasuna gizakion berezko baldintza dela eta, horrenbestez, ezin dela aldatu. Horrez gain, laguntza emango duten pertsonen laguntza behar duten pertsonen borondatea, nahiak eta lehentasunak errespetatuz jokatu behar dute, desgaitasuna duen pertsonak bere erabakiak hartu ahal izatea sustatuz, informatuz, ulermenean eta arrazoiketan lagunduz eta bere lehentasunak adieraztea erraztuz.

Halaber, lehentasuna ematen zaie prebentzio neurriei, botere eta aginduei, baita autokuradoretzarako aukerari ere. Horrelako kasuetan, Gaikuntza Laguntza Neurriak Emateko Institutuak ez luke inolako esku hartzerik edukiko prebentzio neurri horiek pertsonak aldeztu aurretik eman behar izan dituelako, hau da, aginte judizialak desgaitasuna duen pertsonak laguntzak behar dituela ebatzi aurretik, salbu eta ebazpen judizialean adierazten bada pertsonak egintza zehatz horretarako bere kuradorearen laguntza behar duela.

Erreformak bereziki nabarmendutako beste neurri bat egitatezko zaintza da; laguntzeko instituzio juridiko bihurtu da, behin-behineko egoera izateari uzten baitio aski eta egoki gisa jotzen denean desgaitasuna duen pertsonaren eskubideak zaintzeko. Horregatik, Gaikuntza Laguntza Neurriak Emateko Institutuak ez du esku hartzeko tarterik, desgaitasuna duen pertsonak erabakiak hartzeko eta gaitasuna baliatzeko egitatezko zaintzaile baten laguntza eta babes egokia dituen kasuetarako baitago aurreikusita, oro har, senide batena, familiak oraindik, gaur egun, gure gizartean, familia osatzen duten pertsonen arteko babes eta elkartasunaren oinarritzko taldea izaten jarraitzen duelako, desgaitasuna duen pertsonak nahi ez duen inbestidura judizial formala beharrezkoa ez denean. Are gehiago, legegileak aurreikusi du egitatezko zaintzaileak ordezkari zarduketa bat egin behar duenean, aski tresna ematea kasuan kasuko ad hoc baimen judiziala eskatzeko aukera izan dezan.

Egitatezko zaintzailearen figura indartu egin da, ulertzen delako familiaren babesa hobe izango dela desgaitasuna duen pertsonarentzat. Baina egitatezko zaintza existitzen ez den edo aski ez den kasuetarako neurri zabalagoan garatu da, ordezkari zarduketa izatera duten figurak sistematikoki eta aitzakiarik gabe txertatzea saihesteko; horren ordez, laguntza izatera izango duen lanaren alde egin da, ordezkari zarduketa figurek soilik salbuespen gisa jokatu behar dutelako, eta desgaitasun kasu larrietan, eta horrelakoetan soilik irismen orokorra eduki ahal dute.

En este sentido, el Instituto para la provisión de medidas de apoyo, Gaikuntza, siempre y cuando medie una resolución judicial que así lo determine, podrá prestar apoyos a través de la curatela tanto representativa como asistencial, solo en aquellos supuestos en los que exista desamparo a la persona con discapacidad porque no existan parientes que puedan asumir dicha figura de apoyo.

Especial incidencia se produce en cuanto a la figura de la defensa judicial, cuya designación viene desprovista de la automaticidad reconocida en la legislación anterior.

Esta defensa judicial, está garantizada en los procedimientos de prestación de apoyos que se sigan contra personas con discapacidad, en cuyo caso podrá el Instituto para la provisión de medidas de apoyo, Gaikuntza, aceptar dicho cargo y también emerge de modo ocasional cuando no se encuentre garantizado por otras medidas voluntarias, o exista un conflicto de intereses o imposibilidad coyuntural con la figura de apoyo habitual, si bien en estos supuestos el defensor judicial no podrá ser el Instituto.

Finalmente, la necesidad de crear un nuevo marco regulatorio viene también aconsejado por la incorporación de modificaciones en la legislación procesal, Ley de Enjuiciamiento Civil, etc.

La modificación de las funciones anteriormente asignadas al Instituto Tutelar de Bizkaia determina la adecuación de la propia nomenclatura de esta entidad, la cual en lo sucesivo pasará a ser denominada como "Instituto para la provisión de medidas de apoyo, Gaikuntza".

IV

Igualmente, la sustancial modificación legislativa que ha motivado la necesidad de sustituir la Norma Foral 9/2000, de 31 de octubre, por otra norma reguladora nueva, ha advertido de la importancia que tiene distinguir entre la creación y regulación de las principales cuestiones inherentes a la entidad, que deberán realizarse mediante una norma foral, y la aprobación de los estatutos de dicha entidad, de los que en la actualidad carece, orientados a la organización de la entidad empresarial y que, con el fin de poder ser modificados de una manera más ágil, podrían ser aprobados mediante acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia.

V

En la tramitación de la presente propuesta se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Horren haritik, Gaikuntza Laguntza Neurriak Emateko Institutuak, hala xedatzen duen ebazpen judiziala baldin badago, laguntza eman ahalko dio kuradoretzaren bitartez, laguntzako zein ordezkariatzakoa, soilik desgaitasuna duen pertsona babesgabetasun egoeran dagoenean, ez dagoelako laguntza figura hori bete dezakeen seniderik.

Defentsa judizialaren figurari dagokionez eragina berezia da; horren izendapenak ez dauka aurreko legedian inolako automatikotasunik aitortuta.

Defentsa judizial hori bermatuta dago desgaitasuna duten pertsonen aurkako laguntza emateko prozeduretan; horrelakoetan, Gaikuntza Laguntza Neurriak Emateko Institutuak kargu hori onartu ahalko du, eta tarteka ere agertu ohi da, beste borondatezko neurri batzuek bermatzen ez dutenean edo interes gatazka bat dagoenean edo ohiko laguntza figuraren ezintasun koiunturala dagoenean; horrelako kasuetan institutua ezingo da defentatzaile judiziala izan.

Azkenik, arau-esparru berri bat sortzeko beharrari dagokionez, legedi prozesalean, Prozedura Zibilaren Legean eta abarretan aldaketak sartzea ere komeni da.

Lehenago Bizkaiko Tutoretza Institutuari emandako funtzioak aldatzeak ekarri du entitate horren izena bera ere moldatzea; horrenbestez, aurrerantzean Gaikuntza Laguntza Neurriak Emateko Institutua deituko da.

IV

Horrez gain, urriaren 31ko 9/2000 Foru Araua beste arau berri batekin ordeztzeko beharra eragin duen legedi aldaketa nagusiak argi utzi du zein garrantzitsua den entitatearen berezko auzi nagusi batzuk sortu eta arautzearen artean bereiztea, hainbat foru arauen bitartez egin beharko da, eta entitatearen estatutuak onartuz, gaur egun ez baitu estatuturik, enpresa entitatea antolatzena bideratutakoak, eta azkarrago aldatu ahal izateko Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki bidez onartu ahalko lirateke.

V

Proposamen hau izapidetzean Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan aurreikusitako izapideak ikusi dira, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura erregulatzen duena.

Por lo tanto, resultando necesario sustituir el marco regulatorio establecido por la Norma Foral 9/2000, de 31 de octubre, de creación del Instituto Tutelar de Bizkaia, por una nueva regulación en este ámbito, se procede a la aprobación de la Norma Foral que regula el Instituto para la provisión de medidas de apoyo, Gaikuntza, de acuerdo con las siguientes disposiciones

Artículo 1. Constitución e integración institucional.

1. El Instituto Tutelar de Bizkaia pasa a denominarse Instituto para la provisión de medidas de apoyo, Gaikuntza, como entidad pública empresarial foral, sin ánimo de lucro y con personalidad jurídica propia y plena capacidad pública y privada para prestar las medidas de apoyo a las personas con discapacidad para el ejercicio de su capacidad jurídica.

Específicamente, en materia de servicios sociales, desarrollará, entre otros, el servicio de competencia foral (2.7.2.3.) de Servicio de tutela para personas incapacitadas (sic) previsto en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, artículo 22 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, atendiendo al Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, o normas que las sustituyan.

2. El Instituto para la provisión de medidas de apoyo – Gaikuntza queda asignado al departamento de la Diputación Foral de Bizkaia al que se asigne el desarrollo de políticas en el ámbito de apoyo a las personas en situación de discapacidad, en la actualidad el departamento de Acción Social.

Artículo 2. Régimen jurídico

1. El Instituto para la provisión de medidas de apoyo, Gaikuntza se registrará por las disposiciones recogidas en la presente norma y en sus estatutos, así como por las disposiciones que le resulten aplicables en virtud de lo dispuesto en la Norma Foral 5/2006, de 29 de Diciembre, General Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y sus correspondientes disposiciones reglamentarias, o las normas que sustituyan a las anteriores. Igualmente, se registrará por la normativa prevista en el ordenamiento jurídico vigente, aplicable en base a su naturaleza jurídica privada.

2. Igualmente, se registrará por los reglamentos que desarrollen sus actividades, regulen su estructura y funcionamiento interno, así como sus mecanismos de exteriorización y ejecución de los acuerdos adoptados por sus órganos.

3. Los estatutos del Instituto se aprobarán mediante acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia, que será publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia, y regulará, como mínimo, los siguientes aspectos:

- a) Las competencias y actividades que desarrollará el ente.
- b) La determinación de su estructura organizativa.
- c) El régimen económico.

Beraz, Beharrezkoa denez Bizkaiko Tutoretza Institutua sortzeko urriaren 31ko 9/ 2000 Foru Arauak ezarritako arau-esparrua eremu horretan beste arauketa bat jartzea, Gaikuntza laguntza-neurriak betetzeko Institutua arautzen duen Foru Araua onartzen da, honako xedapen hauen arabera:

1. artikulua. Entitatea eratzea eta osatuko duten erakundeak.

1. Bizkaiko Tutoretza Institutuak Gaikuntza laguntza-neurriak betetzeko Institutua izena hartu du, enpresa entitate foral modura, irabazi asmorik gabea eta izaera juridiko propioa eta erabateko gaitasun publiko eta pribatua ditu desgaitasuna duten pertsonen laguntza neurriak emateko haien gaitasun juridikoa baliatzeko.

Berariaz, gizarte-zerbitzuen arloan, besteak beste, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan aurreikusitako ezinduentzako tutoretza-zerbitzuaren foru-eskumeneko zerbitzua (2.7.2.3.) garatuko du, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22.artikulua, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuari jarraiki, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen zorroa, edo horiek ordeztzen dituzten arauak

2. Gaikuntza Laguntza Neurriak Emateko Institutua Bizkaiko Foru Aldundian desgaitasun egoeran dauden pertsonen laguntzeko esparruan politikak garatuko dituen sailaren mende egongo da; gaur egun sail hori Gizarte Ekintza Saila da.

2. artikulua. Araubide juridikoa

1. Gaikuntza Laguntza Neurriak Emateko Institutua arau honetan eta bere estatutuetan jasotako xedapenen arabera arautuko da, baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauan ezarritakoaren haritik aplikagarriak zaizkion xedapenen arabera ere, eta kasuan kasuko xedapen arautzaileak edo aurrekoen ordezeko arauen arabera. Horrez gain, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan aurreikusitako araudiaren arabera arautuko da, izaera juridiko pribatuan oinarrituz aplikagarria zaiona.

2. Horrez gain, entitatearen jarduerak garatu eta egitura eta barne funtzionamendua erregulatuko dituen araudiaren arabera ere arautuko da, baita bertako organoek hartutako erabakiak aplikatu eta kanporatzeko mekanismoen arabera ere.

3. Institutuaren estatutuak Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki bidez onartuko dira; Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, gutxienez, alderdi hauek arautuko ditu:

- a) Entitateak garatuko dituen jarduerak eta eskumenak.
- b) Antolakuntza egitura zehaztea.
- c) Araubide ekonomikoa.

d) El régimen del personal

Artículo 3. Misión y principios inspiradores.

1. El Instituto para la provisión de medidas de apoyo, Gaikuntza, tiene como misión:

a) La provisión de aquellas medidas de apoyo que las personas mayores de edad o menores emancipados precisen para el adecuado ejercicio de su capacidad jurídica y para que puedan desarrollar plenamente su personalidad y desenvolverse jurídicamente en condiciones de igualdad, siempre que hayan sido adoptadas por resolución judicial firme.

Las funciones anteriormente citadas se desempeñarán cuando sean encomendadas a la entidad por designación judicial, bajo los principios de necesidad y proporcionalidad, y en relación con las personas físicas sujetas a cualquier grado de discapacidad que requieran de su atención y sean residentes del Territorio Histórico de Bizkaia, con arreglo a lo dispuesto en la legislación vigente.

b) Asumir la defensa judicial en aquellos procedimientos de provisiones de apoyos que se siguen a personas con discapacidad, y que no hayan querido optar por tener su propia representación procesal. En definitiva, que hayan declinado el designar su propio defensor judicial.

2. Principios rectores.

Gaikuntza promoverá la sensibilización social en el conocimiento, la defensa y garantía de los derechos de las personas adultas con discapacidad, respetará su dignidad y su libre voluntad, y les proporcionará los apoyos necesarios para el ejercicio de su capacidad jurídica conforme a sus deseos y preferencias. Para ello se inspirará en los siguientes principios rectores:

a) Principio de legalidad. Gaikuntza actuará sometida al principio de legalidad, dando estricto cumplimiento a lo dispuesto en el Código Civil, la Ley 1/2000, de 2 de enero, de Enjuiciamiento Civil, Ley 15/2015, de 2 de julio, de Jurisdicción Voluntaria y demás normativa aplicable sobre esta materia.

b) Principios de autonomía y participación. Gaikuntza respetará y fomentará la autonomía de la persona adulta que tenga establecidas medidas de apoyo para el ejercicio de su capacidad jurídica, promoviendo y facilitando su participación activa en la toma de aquellas decisiones que le afecten y en el desarrollo de su proceso vital, conforme a los principios de necesidad y proporcionalidad en los términos recogidos en la ley.

d) Langileen araubidea.

3. artikulua Misioa eta inspirazio printzipioak

1. Gaikuntza Laguntza Neurriak Emateko Institutuaren misioa honako hau da:

a) Adin nagusiko edo adin txikiko pertsona emantzipatuei behar dituzten laguntza neurriak ematea, haien gaitasun juridikoa zuzen baliatzeko eta haien izaera erabat garatu ahal izateko, eta juridikoki berdintasun baldintzetan jardun ahal dezaten, betiere neurriok ebazpen judicial irmo bidez hartu badira.

Lehenago aipatutako funtzioak beteko dira entitateari judicialki esleitu zaizkionean, beharizan eta proportzionaltasun printzipiopean, eta edozein desgaitasun gradu duten pertsona fisikoei dagokienez, arreta behar badute eta Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi badira, indarrean dagoen legegian ezarritakoarekin bat etorrituz.

b) Desgaitasuna duten pertsonen laguntza emateko prozeduretan defentsa judicialaz arduratzea, pertsona horiek haien ordezkari prozesal propioa izatea nahi ez badute. Azken finean, haien defentsa judicial propioa izendatzea baztertu badute.

2. Printzipio gidariak.

Gaikuntzak gizarte-sentsibilizazioa sustatuko du desgaitasuna duten helduen eskubideak aitortu, defendatu eta bermatzeko, haien duintasuna eta borondate askea errespetatuko ditu, eta behar dituzten laguntzak emango dizkie beren gaitasun juridikoa beren nahi eta lehentasunen arabera gauzatzeko. Horretarako, printzipio gidari hauetan oinarrituko da:

a) Legezketasun-printzipioa. Gaikuntza legezketasun-printzipioaren mende egongo da, eta zorrotz beteko du Kode Zibilean, Prozedura Zibilaren urtarilaren 1eko 1/2000 Legean, Borondatezko Jurisdikzioaren uztailaren 2ko 15/2015 Legean eta arlo horretan aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoa.

b) Autonomia- eta partaidetza-printzipioak. Gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza-neurriak ezarrita dituen pertsona helduaren autonomia errespetatu eta sustatuko du Gaikuntzak, pertsona horri eragiten dioten erabaketan eta bere bizi-prozesuaren garapenean parte-hartze aktiboa izatea sustatuz eta erraztuz, premia- eta proportzionaltasun-printzipioekin bat etorrituz, legean jasotako baldintzetan.

- c) Principio de accesibilidad a la información. Gaikuntza promoverá una comunicación fluida con las personas adultas con discapacidad a las que preste apoyos, y garantizará la adecuación y accesibilidad de la información facilitada en base a las necesidades específicas de cada persona, realizando para ello las adaptaciones y ajustes que resulten necesarios. La persona que tenga establecida una medida de apoyo para el ejercicio de su capacidad jurídica tiene derecho a ser informada sobre las cuestiones que le afecten y a acceder a la documentación de carácter personal y patrimonial referida a su persona, dentro de los límites legales y, en su caso, de aquellos derivados de las propias resoluciones judiciales, de forma que se garantice su participación en la toma de decisiones, teniendo en cuenta sus características personales y sus necesidades.
- d) Principio de individualización. Gaikuntza garantizará un trato individualizado y la adecuación de cada intervención a las necesidades específicas de cada persona teniendo siempre en cuenta la atención que requiera su situación concreta y sus singularidades.
- e) Principio de transparencia. Gaikuntza mantendrá un firme compromiso con la transparencia en sus actuaciones, tanto en las administrativas como en las intervenciones realizadas en apoyo a las personas adultas con discapacidad en la gestión de su patrimonio y en las demás áreas que proceda. Como institución pública, estará sometida a la legislación relativa a transparencia y buen gobierno.
- f) Principio de cooperación interinstitucional. Gaikuntza coordinará su actuación con los órganos judiciales competentes para el control y la supervisión del ejercicio de los apoyos establecidos, con las administraciones públicas con competencias en la materia, con entidades privadas del tercer sector, y con el resto de agentes e instituciones que actúen en el campo de la prestación de apoyos o tengan alguna implicación en el área de actuación de Gaikuntza, con objeto de generar sinergias que contribuyan a facilitar el cumplimiento de sus fines, fomentar la autonomía de la persona adulta con discapacidad, y mejorar la asistencia y la prestación de las medidas de apoyos que la persona precise en cada momento.
- c) Informazioa eskuratzeko printzipioa. Gaikuntzak lagundutako pertsona heldu desgaituekiko komunikazio arina sustatuko du, eta emandako informazioaren egokitasuna eta eskuragarritasuna bermatuko ditu, pertsona bakoitzaren behar espezifikoen arabera, eta, horretarako, beharrezkoak diren egokitzapenak eta doikuntzak egingo ditu. Gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza-neurririk ezarrita duen pertsonak eskubidea du berari eragiten dioten gaietarako buruzko informazioa jasotzeko eta berari buruzko dokumentazio pertsonala eta ondarezkoa eskuratzeko, legezko mugen barruan eta, hala badagokio, ebazpen judizialek eratorritako barruan, erabakiak hartzen parte hartuko duela bermatzeko, ezaugarri pertsonalak eta beharrezkoak kontuan hartuta.
- d) Indibidualizazio-printzipioa. Gaikuntzak tratu indibidualizatua bermatuko du, bai eta esku-hartze bakoitza pertsona bakoitzaren premia espezifikotara egokitzea ere, betiere pertsona horren egoera zehatzak eta berezitasunek eskatzen duten arreta kontuan hartuta.
- e) Gardentasun-printzipioa. Gaikuntzak gardentasunarekiko konpromiso irmoa izango du bere jardueretan, bai administrazio-jardueretan, bai desgaitasuna duten helduei beren ondarearen kudeaketan eta dagozkion gainerako arloetan laguntzeko egindako esku-hartzeetan. Erakunde publikoa den aldetik, gardentasunari eta gobernu onari buruzko legeria bete beharko du.
- f) Erakundeen arteko lankidetzaren printzipioa. Gaikuntzak honako hauekin koordinatuko du bere jarduna: ezarritako laguntzen erabilera kontrolatzeko eta gainbegiratzeko eskumena duten organo judizialekin, arlo horretan eskumena duten administrazio publikoekin, hirugarren sektoreko erakunde pribatuekin eta laguntzak ematearen esparruan jarduten duten edo Gaikuntzaren jardun-arloan inplikazioaren bat duten gainerako eragile eta erakundeekin, sinergiak sortzeko eta, horrela, helburuak betetzen laguntzeko, desgaitasuna duen pertsona helduaren autonomia sustatzeko eta pertsonak une bakoitzean behar dituen laguntza-neurrien prestazioa hobetzeko.

Igualmente, las diversas áreas de Gaikuntza deberán actuar de forma coordinada para una mejor prestación de los servicios de apoyo que las personas atendidas necesitan.

Era berean, Gaikuntzako arloek modu koordinatuan jardun beharko dute, artatutako pertsonen behar dituzten laguntza-zerbitzuak hobeto emateko.

- g) Principios de neutralidad patrimonial, independencia e imparcialidad. Gaikuntza desempeñará su labor con independencia e imparcialidad, siempre en beneficio de la persona adulta con discapacidad a la que preste cualquier tipo de apoyo y preverá mecanismos que eviten conflictos de intereses entre la persona apoyada, tanto con la propia Gaikuntza o su personal, como con las entidades públicas y privadas que colaboren con esta, así como los que pudieran producirse entre las propias personas a las que se preste apoyo entre sí.
- h) Principios de eficiencia y calidad. Como institución pública, Gaikuntza actuará con eficiencia en la gestión y en la utilización de los recursos públicos asignados, con criterios que permitan la evaluación a través de indicadores de seguimiento y con el objetivo de alcanzar la mayor cuota de calidad en el servicio público que tiene encomendado.

Artículo 4. Principales funciones.

Para el cumplimiento de su misión Gaikuntza desarrollará las siguientes funciones principales:

- a) El ejercicio inexcusable de la provisión de medidas de apoyo a las personas mayores de edad y menores emancipadas, para el ejercicio de capacidad jurídica, residentes en el Territorio Histórico de Bizkaia, en los términos fijados por el Código Civil, cuando así lo determine y le sea conferida dicha encomienda por la autoridad judicial competente por resolución de carácter provisional o firme y definitiva, así como las medidas cautelares que se adoptaren en su causa.

Tales funciones se desarrollarán en el marco de las prerrogativas impuestas por mandato judicial, y siempre bajo criterios de prudencia, conservación, diligencia debida y mejora si fuere posible, atendiendo a la voluntad, deseos y preferencias de las personas con discapacidad y procurando de manera objetiva y razonable la ayuda en la comprensión del proceso de toma de decisiones y consentimiento para llevar a cabo cualquier acto y/o negocio jurídico y/o económico, al igual que en cualquier otro marco decisorio de interés personal.

Además, se extinguirá o expirará dicho cometido cuando así fuese decretado, de igual manera, por la autoridad judicial competente, o por concurrir las causas de extinción establecidas en el Código Civil.

- b) El desempeño de la figura de la Curatela, tanto de naturaleza asistencial como de representación, en los términos reconocidos en la resolución judicial, en el vigente Código Civil y normativa estatal, así como en las disposiciones de la Comunidad Autónoma o Foral del Territorio Histórico de Bizkaia concordantes en su desarrollo, cuando la persona con discapacidad precise de medidas de apoyo continuadas y así haya sido determinado en la correspondiente resolución judicial.

- g) Ondare-neutraltasunaren, independentziaren eta inpartzialtasunaren printzipioak. Gaikuntzak independentziaz eta inpartzialtasunez beteko du bere lana, edozein motatako laguntza ematen dion pertsona heldu desgaituaren mesedetan beti, eta interes-gatazkak saihesteko mekanismoak aurreikusiko ditu, bai laguntza jasotzen duen pertsonaren eta Gaikuntzaren edo Gaikuntzako langileen artean sorturikoak, bai harekin lankidetzan aritzen diren erakunde publiko eta pribatuekin sorturikoak, bai eta laguntza jasotzen duten pertsonen artean sorturikoak.

- h) Efizientziaren eta kalitatearen printzipioak. Erakunde publiko gisa, Gaikuntzak eraginkortasunez jardungo du esleitutako baliabide publikoen kudeaketan eta erabileran, jarraipen-adierazleen bidezko ebaluazioa ahalbidetzen duten irizpideekin, eta esleituta daukan zerbitzu publikoan kalitate-kuotarik handiena lortzeko helburuarekin.

4. artikulua Funtzio nagusiak

Gaikuntza Laguntza Neurriak Emateko Institutuak funtzio nagusi hauek garatuko ditu:

- a) Adin nagusiko eta adin txikiko pertsona emantzipatuei laguntza neurriak emateko funtzio saihetsezina, dagokien gaitasun juridikoa balia dezaten, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi badira, Kode Zibilak finkatutako terminoetan, hala ebazten denean eta agente judicial eskudunak lan hori ematen dionean, behin-behineko ebazpen edo behin betiko ebazpen irmo bidez, baita kausan hartutako kautelazko neurriak ere.

Funtzio horiek agente judicial bidez ezarritako eskumenen esparruan garatuko dira, eta betiere zuhurtzia, kontserbazio, behar den diligentsia eta, ahal izanez gero, hobetzeko irizpideekin, desgaitasuna duen pertsonaren borondatea, nahia eta lehenatasunak aintzat hartuz; horrez gain, edozein egintza eta/edo negozio juridiko eta/edo ekonomiko bideratzeko baimen eta erabakiak hartzeko prozesua ulertzeko laguntza emango zaio, modu objektibo eta zentzuzkoan, baita interes pertsonalean erabakiak hartzeko beste edozein esparrutan ere.

Horrez gain, betebeharrak hori iraungi edo bukatu egingo da hala agintzen denean, modu berean, agente judicial eskudunaren partez, edo Kode Zibilean ezarritako iraungitze kausak sortu direlako.

- b) Kuradoretza figura betetzea, laguntza izaeraduna zein ordezkaritza izaeran, ebazpen judizialean, Kode Zibilean eta estatu mailako araudian jasotako terminoetan, baita garatzeko autonomia erkidegoko xedapenetan edo Bizkaiko Lurralde Historikoko xedapen foraletan jasotako terminoetan ere, desgaitasuna duen pertsonak laguntza neurri jarraituan behar dituenean eta hala ebatzi bada kasuan kasuko ebazpen judizialean.

- c) La asunción, en su caso, de la defensa judicial de las personas mayores de edad residentes en el Territorio Histórico de Bizkaia, cuando se haya iniciado un proceso de provisión de apoyos y, que por algún motivo, éstas no hayan designado representación procesal.
- d) El cumplimiento de las correspondientes autorizaciones judiciales para la realización de cualquier acto que requiera la acreditación de la representación, a través del correspondiente expediente de jurisdicción voluntaria, en los términos en los que así haya sido autorizada.

Igualmente, el cumplimiento de las autorizaciones judiciales para la prestación del consentimiento de los actos que impliquen riesgo para la vida, la integridad física o la libertad de la persona, cuando ésta no pueda prestarlo, así como cuando tuviere lugar la realización de actos jurídicos y/o económicos que alberguen especial relevancia económica y significado personal o familiar, dando estricto cumplimiento a las resoluciones dictadas por los juzgados y tribunales.

- e) La provisión de información, orientación, asesoramiento y asistencia a familiares, personas allegadas u otras personas físicas y/o jurídicas que vinieren a desarrollar alguna de las instituciones de apoyo.

Artículo 5. Extinción y disolución.

1. La extinción, disolución y liquidación del Instituto para la provisión de medidas de apoyo, Gai-kuntza, se producirá mediante una disposición con rango de norma foral de las Juntas Generales de Bizkaia.
2. La norma de disolución acordará la liquidación del Instituto y el destino de los medios materiales y personales asignados al mismo.”

Disposición adicional única. Alcance de la norma foral.

La presente norma foral no implica la disolución del Instituto Tutelar de Bizkaia, sino la modificación de su denominación y la sustitución de su regulación.

Disposición transitoria única. Régimen transitorio de vigencia de la Norma Foral 9/2000, de 31 de octubre.

En tanto no se aprueben y entren en vigor los estatutos del Instituto para la provisión de medidas de apoyo, Gai-kuntza, se mantendrán vigentes los artículos de la Norma Foral 9/2000, de 31 de octubre relativos a los ámbitos que serán regulados por los nuevos estatutos.

- c) Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren adin nagusikoen defentsa judiziala bere gain hartzea, hala badagokio, laguntza emateko auzi prozesu bat hasi denean eta, arrazoiren bat dela medio, pertsona horiek ez badute ordezkaritza prozesalik izendatu.
- d) Kasuan kasuko baimen judizialak betetzea ordezkaritza egiaztatzea eskatzen duen edozein egintza egiteko, kasuan kasuko borondatezko jurisdikzio espedientearen bitartez, hala baimendu den terminoetan.

Horrez gain, pertsonaren bizitza, osotasun fisikoa edo askatasuna arriskuan jar dezaketen egintzetarako baimena emateko baimen judizialak betetzea, pertsona horrek baimena eman ezin duenean, zein pertsonarentzat edo familiarentzat esanahi eta garrantzia ekonomikoa berezia daukaten egintza juridiko eta/edo ekonomikoak egiten direnean, epaitegiek eta auzitegiek emandako ebazpenak zorrotz betez.

- e) Informazioa, orientazioa, aholkularitza eta laguntza ematea senideei, gertukoei edo beste pertsona fisiko eta/edo juridiko batzuei, laguntzaren bat garatzera etorritz gero.

5. artikulua Azkentzea eta desegitea

1. Gai-kuntza Laguntza Neurriak Emateko Institutua azkendu, desegin eta likidatzeko Bizkaiko Batzar Nagusien foru arau mailako xedapena beharko da.
2. Erakundea desegiteko arauak institutua likidatzea ebatziko du, eta institutuari esleitutako giza baliabide eta baliabide materialen helburua ezarriko da.”

Xedapen gehigarri bakarra. Foru arauaren irismena

Foru-arau honek ez du esan nahi Bizkaiko Tutoretza Institutua desegin behar denik, baizik eta haren izena aldatu eta haren erregulazioa ordeztzea.

Xedapen iragankor bakarra. Urriaren 31ko 9/2000 Foru Arauaren indarraldiaren araubide iragankorra.

Harik eta Gai-kuntza Laguntza Neurriak Emateko Institutuaren estatutuak onartu eta indarrean sartu arte, indarrean mantenduko dira urriaren 31ko 9/2000 Foru Arauko artikuluetatik estatutu berriek arautuko dituzten eremuei buruzkoak.

Disposición derogatoria. Derogación de la Norma Foral 9/2000, de 31 de octubre.

Con la salvedad establecida en la disposición transitoria precedente, a la entrada en vigor de esta norma foral quedará derogada la Norma Foral 9/2000, de 31 de octubre de creación del Instituto Tutelar de Bizkaia, posteriormente modificada por la Norma Foral 3/2003, de 13 de marzo, así como cualquier otra disposición reguladora del Instituto Tutelar de Bizkaia que se oponga a la presente disposición general.

Disposición final primera.

La Diputación Foral de Bikaia aprobará los estatutos del Instituto para la Provisión de Medidas de Apoyo, Gaikuntza, en el plazo de seis meses a contar desde el día siguiente a la publicación de esta norma foral.

Disposición final segunda. Entrada en vigor.

La presente norma foral entrará en vigor al siguiente día hábil al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Xedapen indargabetzailea. Urriaren 31ko 9/2000 Foru Araua indargabetzea.

Aurreko xedapen iragankorren ezarritako salbuespenarekin, foru arau hau indarrean sartzen denean indargabetuta geratuko da Bizkaiko Tutoretza Institutua sortzeko urriaren 31ko 9/2000 Foru Araua, ondoren martxoaren 13ko 3/2003 Foru Arauak aldatu zuena, bai eta xedapen orokor honen aurka dagoen Bizkaiko Tutoretza Institutuaren beste edozein xedapen arautzaile ere.

Azken xedapenetatik lehenengoa.

Bizkaiko Foru Aldundiak sei hilabeteko epean onartuko ditu Babes Neurrien Hornidurarako Gaikuntza Institutuaren estatutuak, foru arau hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Azken xedapenetatik bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.